

zuhaitz landaketa herrikoiak

Haritzalde Naturzaleen Elkartek Donostiako Udalarari natura eta bereziki zuhaitzekiko sentsibilizazioa bultzatzeko eta aldi berean herritarron partaidetza sustatzeko negu honetarako zuhaitz landaketa herrikoiak edo zuhaitz egun ezberdinak antolatzea proposatu dio. Eskaera azaroan luzatu genuen eta Parke eta Lorategiko Saitetik aldeko jarrera azaldu bazuten ere, oraindik ez dugu erantzuna jaso. Hala ere, espero dugu baiezkoa izatea eta lehenbailehen burutzea, proposatzen ditugun 3 zuhaitz-landaketak otsaila eta martxoan zehar burutu ahal izateko.

- **Loiolako Erriberan, Urumeako ertzean:** 15 bat haritz (gutxienez 3 mkoak) landatzea. Eremua oso egokia da, zabala, eta tokiak eite handiko zuhaitzak eskatzen ditu. Gainera, ibaiaren ubideraketak suposatu zuen artifizialtasuna pixka bat leundu liteke horrela. Egokienak haritzak, bertoko zuhaitza. Bertako landarea izatea ere eskatzen dugu. Zuhaitz egunarekin batera Haritzaldek festa-ospakizun txikia burutuko luke.
- **Amaiur parkean.** Amara Osinaga eta Loiolako erribera auzoak batzen dituen. 2 hamarkada parkearen zain. Haritzalde sortu zeneko lehenetariko eskaeratako bat izan zen “hasitako” parke hura behar bezala egokitzea eta zabaltzea herritarron aisialdi eta gozamenerako. Amara Osinagako Auzo Elkartek hainbatetan eskatu du gauza bera. Sinbolikoa bada ere, bizilagunekin landaketa herrikoia, eta festa txikia antolatu nahi ditugu.
- **Ikasbide Ikastola. Loiolako Erriberan.** Ikastolan zuhaitzik gabeko 8 alkorke omen daude. Ikastolako guraso talde batek eskatu digu leku horietan zuhaitz-landaketa burutzeko elkarrekin. Hortaz, bertako 8 zuhaitz, espezie ezberdinetakoak (frutondoak ere izan litezke), ikasleekin batera landatu nahi ditugu.

Zergatik landaketa herrikoiak. Bada, herritarron partaidetza aktiboan sinesten dugulako eta hori maila ezberdinetara iritsi behar dela sinisten dugulako. Sentsibilizazioa eta heziketa, baina baita herritartasuna ere, landu behar dira eta Haritzalderen helburu nagusietakoa da. Gainera, Udalarentzat aukera bikaina da helburu horiek beraiek lortzeko eta herritarrengatik gertuago egoteko. Zer esanik ez, era berean urteetan Udalak auzokideei zor zionaren ordaina litzateke.

Donostia, 2014ko urtarrilaren 30ean

Haritzalde Naturzaleen Elkartea

900 110 111 / 609 420 438

naturzale@haritzalde.org

www.haritzalde.org